

## VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREN MENDEURRENA

Donostiako Victoria Eugenia Antzokiak mendeurrena beteko du heldu den uztailaren 20an. Ehun urte ez dira egunero betetzen eta hori ospatu beharra dago. Data esanguratsu hori gerturatzeko ari da, eta egun berezi horretarako prestatu dugun egitarauaren berri ematera gatoz. Urte osoan zehar egin dizkiogu keinuak antzokiari, keinu txikiak eta sinbolikoak, baina orain, urtebetzearen egunean, omenaldi berezia egin nahi diogu, eta ekitaldi potoloagoa prestatu dugu. Hiru ekintzetan programatu dugu egitaraua.

Kutxaren Boulevardeko aretoan ikusgai egongo den erakusketa prestatu dugu. Uztailaren 13tik 31ra egongo da zabalik eta bertan antzokiaren ibilbidea jasotzen duten argazkiak, dokumentuak eta bideoak egongo dira. Uztailaren 13an zabalduko da erakusketa eta denak zaudete gonbidatuta bertara gerturatzeko.

Egun handia, baina, uztailaren 20koa izango da, ostiralarekin, gauerdian horretan antzokiak atek parez pare zabalduko baititu. Jazzaldian murgilduta egongo gara eta gau magikoa izango da. Gaujazzak aukera emango digu eraikin eder honen bazter eta txoko ezberdinetatik jazzaz gozatzeko, baina aurretik denok elkarrekin topa egingo dugu antzokia zoriontzeko. Gaueko 11:30ak aldera elkartzeko gara hemen.

Eta Aste Nagusian ere sorpresak izango ditugu. Abuztuaren 18an, larunbatarekin, ikuskizun piromusikal eder batez gozatu ahal izango dugu Victoria Eugenia Antzokitik. Eta Aste Nagusiaren marko horretan beste ekitaldi bat; abuztuaren 15ean Itzurun konpartsak koreografia berezi bat eskainiko digu erraldoiekin batera Victoria Eugeniako sarrera nagusian, arratsaldeko 18:45etan.

Jarraian dituzue mendeurrenaren markoan programatu diren hiru ekimen hauen inguruko xehetasun guzti-guztiak.

## ERAKUSKETA: #VICTORIAEUGENIA, SARE SOZIALA

Victoria Eugenia Antzokia Gipuzkoako sare sozial aktiboenetako bat bihurtu da 100 urtetan zehar, gizarteko talde eta kolektibo anitzak elkartzeko, eta lurraldean zehar zabaldu diren jaialdi handiak antolatzeke, talentuak trebatzeke eta loturak garatzeko laborategi izan da. Azken batean, Donostia maila internazionalen ezagutarazten lagundu du.

XX. mendeko Europako antzoki garrantzitsuenetako bat dela diote askok, eta horrek Victoria Eugeniak 1912 eta 2012 artean bizi izan dituen garai ezberdinetara egokitzeke erakutsi duen gaitasuna islatzen du.

Erakusketak antzokian izandako historia ofizialaren eta lau pareta hauen artean gertatu diren hamaika istorio txikiren arteko oreka bilatzen du. Horregatik, gune berezi bat prestatu da pasadizoak, hausnarketak eta bizipenak entzuteko, protagonistetako batzuek eurek kontatuta.

Bere historia gure historia da.

Ongi etorri #VictoriaEugeniako sare sozialera.

Erakusketa Kutxa Boulebar Aretoko beheko solairuan egongo da. Eta ibilbideak lau eremu proposatuko ditu antzokiko espazio ezberdinak gogoratzeko: frisoa, foyer-a, backstage-a eta besaulki patioa.

1. **Frisoa.** Antzoki bateko frisoa irudikatzen duen eremua. Hor, bisitariak antzokiaren 1912 eta 1985 arteko kronologia ezagutuko du. Garai horretan udalak hartu zuen antzokiaren ardura eta lehen zaharberritze lanak egin zituen.
2. **Foyer-a.** Aktibitate eta publiko berrienganako irekiera sinbolizatzen duen topagunea da. Zabaltze hori 1986tik aurrera gertatu zen, kultura patronatuak osatu zirenean. Garai honetako kronologia 1986an hasi zen, eta 2000n amaitu, antzokia zaharberritze-lanak egiteko itxi zenean.
3. **Backstage-a.** Parte-hartzerako eremua izango da non hiritarrek beraiek emango diguten euren irudien bidez, 2007tik 2012ra antzokian bizitakoaren berri. Hemen, pertsonak iruzkinak, pasadizoak eta oroitzapenak idatzi ahal izango dituzte. Horretaz gain, gaurtik aurrera, antzokiaren bizitzarekin lotutako argazkiak eta dokumentazioa ere utzi ahal izango dute. Horretarako, San Telmo Museora jo beharko dute, eta hiritarrek emandako materiala interesgarria bada, museoko ondare funtsean gordeko dira katalogatuak eta kontserbatuak izan daitezten.
4. **Besaulki patioa.** Areto Erdiko gunean besaulki patio txiki bat egongo da antzokiko besaulki zaharrekin egina. Bisitaria hor eseri ahal izango da, oroitzapenak, pasadizoak eta gertakari historikoak entzun eta ikusteko, horietako batzuk protagonistek lehen pertsonan kontatuak, gainera.

60´ko bi monitore sinkronizatuk osatutako pantaila batean irudi historikoak eta 100etik gora elkarrizketaren adierazpenak erakutsiko dira; besteak beste, Elías Querejeta, Ainhoa Arteta, Javier Aguirresarobe, Imanol Olaizola, José Sacristán, Peter Ansorena, Anje Duhalde, Lucía Lacarra, Ramón Agirre, Benito Lertxundi, Carolyn Carlson, Iñaki Gabilondo, Jose Antonio Echenique, Bernardo Bertolucci, José Carreras, Olatz Beobide, Óscar Terol, etc.

Aretotik barrena doan ibilbidea antzokiko elementu originalez zipriztinduta egongo da: makillaje mahai bat, bere historiako kartel esanguratsuak, esku-orriak, foyer-eko besaulki zirkularra, butakak eta abar.

## 47. HEINEKEN JAZZALDIA: GAUJAZZA

Uztailaren 20an Victoria Eugenia Antzokiaren 100. urteurrena ospatuko da, eta topa egingo dugu mendeurrena ospatzeko. Victoria Eugeniako Foyerrean izango da hori, gaueko 23:30etan. Heineken Jazzaldiak ospakizunekin bat egingo du eta Gaujazza programatu du horren harira. Gauerdian atak parez pare zabalduko ditu Antzokiak eta kontzertuak egongo dira antzokiko txoko guztietan, baita ezustekoenetan ere. Hala, publikoak musika ona entzuteko aukera edukitzeaz gain, eraikinaren zirrikitu guztiak ezagutzeko parada izango du.

Gau jostaria izango da Gaujazza, baina baita musika-kalitate handikoa ere. Swing-a Ray Gelato saxofoi-jotzaileak eta Just Friends iparraldeko boskoteak ekarriko dute; Europako iparraldeko jazz beti interesgarriak, berriz, Terje Rypdal gitarra-jotzailea eta Mari Kvien Brunvoll kantaria izango ditu ordezkari; Josetxo Goia-Arribere eta Arantxa Díez nafarrek fusio harrigarria erakutsiko digute, jotaren eta jazzaren artekoa; Dorantes piano-jotzailea, berriz, flamenko-jazzaren adierazle behinenetako bat da; abangoardiako jazz, berriz, Peter Evans tronpeta-jotzaileak jarriko du; eta festari amaiera emateko, S. Mos DJ frantziarra izango dugu.

Gaujazza: uztailak 20. Victoria Eugenia Antzokia. Foyerrean, topa egitea 23:30ean; Skoda Gunean, kontzertuak 23:58ean. 3 €

### EGITARAUA

23:30 Topa egitea.

23:58 Gaujazza

Aretoa Nagusia

24:00 Ray Gelato & His Giants Orchestra: Tribute to Louis Prima

02:00 S. Mos

Club Aretoa

01:00 Terje Rypdal

Dantza Aretoa

24:00 Just Friends Quintet

01:00 Josetxo Goia-Arribere

02:00 Peter Evans

Foyer-a

01:00 Dorantes

Prentsa Aretoa

24:00 Mari Kvien Brunvoll

## BIOGRAFIAK

- **Ray Gelato & His Giants Orchestra: Tribute to Louis Prima**

**Ray Gelato** (ahotsa, saxo tenorra), **Oliver Wilby** (saxo tenorra, saxo altua), **Andy Rogers** (tronboia), **Daniel Marsden** (tronpeta), **Gunther Kurmayr** (pianoa), **Oliver Hayhurst** (baxua), **Sebastian De Krom** (bateria)

[www.raygelato.com](http://www.raygelato.com)

Ray Gelatok 40. eta 50. hamarraldiko jazzeko showmen handien tradizioari eusten dio. Bere ikuskizun oparoak jazzak hasieratik bereak zituen bi osagarri eskaintzen ditu: umorea eta olgeta. Gelatoren saxo tenorearen soinu mardula –Ike Quebec-enean eta Illinois Jacquet-enean oinarritua–, bere abesteko estiloa –Louis Prima eta Louis Armstrongengandik ikasia–, eta showman gisa dituen dohainak direla eta, talde hau egungo swing musikako talde dinamikoenetako bat da, zalantzarik gabe.

- **Just Friends Quintet**

**Dominique Burucoa** (tronpeta), **Emmanuel de Montalembert** (gitarra), **Laurent Aslanian** (kontrabaxua), **Arnaud Labastie** (pianoa), **Antoine Gastinel** (bateria)

[justfriends.canalblog.com](http://justfriends.canalblog.com)

Baionako boskote honek “mainstream” estiloko jazz a egiten du, Count Basie, Duke Ellington eta Benny Goodmanen urrezko arokoa. Konponketa berriei eta konposizio propioei esker, soinu berezia sortzen du orkestrak: erraz tartekatzen dira instrumentisten bakarkako jardunak duo eta trioetan abestutako zatiek; horrela bermatzen dute beren emanaldietan lortzen duten giro alai.

- **Terje Rypdal**

**Terje Rypdal** (gitarra), **Ståle Storløkken** (organoa), **Nikolai H. Eilertsen** (baxua), **Paolo Vinaccia** (bateria)

[www.myspace.com/terjerypdalodyssey](http://www.myspace.com/terjerypdalodyssey)

Terje Rypdal gitarra-jotzaile norvegiarra, Jan Garbarek musikariaren Esoteric Circle lanaren partaide izateagatik ezagutu zuten jazz musikaren zaleek. Segituan ECM diskoetxearen marka-irudietako bat izatera iritsi zen. After the Rain lanean erakutsi zuen interpretaziorako gaitasun mugagabeak mirespena sorrarazi zuen, musika-tresna guztiak berak jo baitzituen disko horretan. 2010. urtean Heineken Jazzaldian ikusi genuen Miroslav Vitous kontrabaxu-jotzailearekin eta Gerald Cleaver bateria-jotzailearekin osatutako trio alai. Oraingo proiektuan, Europa Iparraldeko panoramako musikari gailenetako batzuk bildu ditu.

- **Mari Kvien Brunvoll**

**Mari Kvien Brunvoll** (ahotsa, elektronika)

[www.myspace.com/marikvienbrunvoll](http://www.myspace.com/marikvienbrunvoll)

Norvegian jadanik ohituta daude bertako jazza munduko abangoardian kokatzea lortu duten artista berritzaileekin. Dena den, oraindik ere agertzen dira giro musikal iradokitzailea sortzeko duten gaitasunagatik harridura eragiten duten talentuak. Horixe da, hain zuzen, Mari Kvien Brunvoll abeslariak lortu duena, bere ahots aldakorra eta hainbat aparatu elektroniko baliatuta. Bere aurretik izan direnek –esaterako Sidsel Endressen abeslariak– markaturiko ildotik, Mari Kvien Brunvoll jazzaren, elektropoparen eta blues akustikoaren artean dagoen eremu zehaztugabea mugitzen da.

- **Jose txo Goia-Arrib e / Arantxa Díez: *En Jota***

**Javier Olabarrieta** (pianoa), **Arantxa Díez** (ahotsa), **Baldo Martínez** (baxua), **Jose txo Goia-Arrib e** (saxo tenorra, konponketak, konposizioak)

[www.josetxogoia-aribe.com](http://www.josetxogoia-aribe.com)

Jose txo Goia-Arrib e musikari nafarrak ospe handia lortu du Europako jazz munduan, tradiziozko musikaren elementuak jazzaren alorrera eramateagatik, modu berritzailean eta gaurkotasun handiarekin gainera. En jota izeneko bere azken lanean, jota musika-generoari heldu dio. Flamenkoaren eta fadoaren antzera, genero hori ere oso errotuta dago Iberiar penintsulako paisaian.

- **Dorantes: *Sin Muros!***

**Dorantes** (pianoa), **Ricardo Moreno** (gitarra), **Yelsy Heredia** (kontrabaxua), **Nano Peña** (bateria)

[www.dorantes.es](http://www.dorantes.es)

Pianoa flamenko bihurtzen da eta flamenkoak berri soinua hartzen du David Peña Dorantesi esker. Sevillako musikari honek (Lebrija, 1969) orain arte flamenkoaren munduan ezezagunak ziren bideak esploratzeko ausardia izan du, hori bai, Andaluziako tradiziozko musikan historia luzea duen bere familian jasotako irakaspenei traizio egin gabe.

- **Peter Evans**

[www.myspace.com/peterevanstrumpet](http://www.myspace.com/peterevanstrumpet)

Peter Evans tronpeta-jotzailea iaz egin zen ezagun Heineken Jazzaldiko publikoarentzat, kritika onenak jaso zituzten bi kontzertuetan parte-hartu zuenean: inprobisazio hutsean Agustí

Fernándezekin eskaini zuena, eta Mostly Other People Do the Killing taldearen baitan emandakoa, egungo jazzeko talde berritzaileenetakoa.

- **S. Mos**

**S. Mos** (DJ, ahotsa, teklatuak)

[www.smosmusic.com](http://www.smosmusic.com)

S. Mos DJ frantziarra hip-hop, jazz eta elektronika nahasten maisua da. Platerak trebetasun handiz erabiltzen ditu, dantza egiteko gogo eutsiezina eragiten duen soinua sortuz. Bere remixetan hainbat artista nahasten dira; esaterako, Tupac eta Duke, Eminem eta Mingus, Ice Cube eta Dexter Gordon. Bere diskoak behin eta berriro igotzen dira Frantziako eta Europako beste herrialdeetako binilo zerrendetako lehenengo postuetara.

## ASTE NAGUSIA: IKUSKIZUN PIROMUSIKALA

Aste Nagusiaren amaierak Victoria Eugenia Antzokiaren irudia izango du. Izan ere, abuztuaren 18an, larunbata, Su Artifizialen Jaialdi Internazionalari bukaera emateko, ikuskizun txundigarri bat egingo da eraikin honetan.

22 minutu inguru iraungo ditu; hor, Victoria Eugenia Antzokiko historia erreparatuko da antzokiak 100 urte hauetan bizi izan dituen 17 gertakaritan laburbilduta. Ikuskizunak azpiegitura eszenikoa izango du elementu nagusi, Urumea ibaiko barandari begira. Ondo ikusi ahal izango da Ramón María Lilitik, Jose María Leizaola pasealekutik eta María Cristina zubitik. Gainera, ziurrenik, altuera handien hartzen duten efektuak Uliatik, Egiatik eta Boulevard-etik ere ikusi ahal izango dira.

Hala, ikuskizuna antzokiaren ingurua bengalez argizatuz hasiko da, Santoriniren musikaz lagunduta. Jarraian, historiari erreparatzea emango zaio antzokian antzeztu zen lehen lana gogora ekarriz, *En Flandes se ha puesto el sol*, Eduardo Marquinaarena. Hauek dira ikuskizun piromusikalean islatuta agertuko diren ikuskizun batzuk: Verdiren *Aída*, Donostiako Orfeoaren Konpainia Lirikoaren debuta Pablo Sorozabal donostiarraren *Katuska* obrarekin, edo Bizeten *Carmen* ezaguna. Mikel Laboari, euskal musikaren erreferenteetako bat, *Txoria txorirekin* eta *Baga Biga Higarekin* omen egingo zaio. Era berean, 1962an jaio ziren bi talde ere agertuko dira euren kantuetako batzuetan zehar ibilbidea eginez: The Beatles eta Beach Boys. Azkenik, Antonio Vivaldiren *Storm Techno*-rekin Vanessa Maek egindako bertsioa ere entzun ahal izango da.

Ikuskizun piromusikala Bernardo Sanchiz Vallbona zuzendari artistiko ezagunak diseinatu du, eta Pirotecnica Valecea – PIR S.L. enpresa arabarrak gauzatuko du. Zalantzarik gabe, ohikotik ateratzen den ikusmoldea eskainiko du ikuskizun honek, eta ziur, luzaroan gogoratuko da.



**Erraldoi eta buruhandiek Victoria Eugeniari dantza egingo diote bere 100. Urteurrenean. Abuztuaren 15ean izango da hori, antzokiko sarreran, 19:45ean.**

Erraldoi eta buruhandiek ere, jai donostiarrean hain ohikoak, omenaldia egin nahi diote gure antzokiari bere 100. urteurrenean. Hain zuzen, horretarako prezeski prestatu duten koreografia bat estreinatuko dute.

Hori abuztuaren 15ean izango da, Zuloaga plazatik atera ondoren, 19:45ean. Antzokiaren sarreran ilara batean jarriko dira eta, konpartsa osatzen duten 8 irudi handiek (bikote gipuzkoarra, arabarra, bizkaitarra eta nafarra) agur egingo diote antzokiari eta bere omenez dantzatuko dute.

Erraldoiak dantzan ikustea ohikoa da gure Aste Nagusian, eta oraingo honetan, errepidea hartuko dute gure antzokia behar den bezala zoriontzeko.



## CENTENARIO DEL TEATRO VICTORIA EUGENIA

El Teatro Victoria Eugenia de Donostia/San Sebastián alcanzará el centenario el próximo 20 de julio. 100 años no se cumplen todos los días y eso hay que celebrarlo. Se está acercando esa fecha tan especial, y queremos anunciaros el programa que hemos preparado para ese día tan especial. Durante todo el año le hemos hecho guiños al teatro, gestos pequeños y simbólicos, pero ahora, el día de su aniversario, queremos hacerle un homenaje como se merece, y hemos preparado un acto más especial. El programa lo hemos preparado con tres actividades.

En la Sala Kutxa Boulebard habrá una exposición. Estará abierta del 13 al 31 de julio, y recogerá fotos, documentos y videos que reflejan el recorrido del teatro. La exposición se inaugurará el 13 de julio y estáis todos invitados.

Sin embargo, el gran día será el 20 de julio, viernes, cuando a medianoche el teatro abra sus puertas de par en par. Esos días estaremos inmersos en el Jazzaldia y será una noche mágica. La Noche en Jazz nos ofrecerá la posibilidad de disfrutar del jazz desde diferentes rincones de este bello teatro, pero antes, todos brindaremos para felicitar al teatro. Nos reuniremos aquí hacia las 11:30 de la noche.

En la Semana Grande también tendremos sorpresas. El 18 de agosto, sábado, disfrutaremos de un espectáculo piromusical desde el Teatro Victoria Eugenia. Asimismo, dentro del marco de la semana grande tendremos otro acto: el 15 de agosto la comparsa Itzurun ofrecerá una coreografía especial con los gigantes frente a la entrada principal del Victoria Eugenia, a las 18:45.

A continuación tenéis los detalles de los actos programados dentro del marco del centenario.

### EXPOSICIÓN: #VICTORIAEUGENIA, LA RED SOCIAL

A lo largo de cien años el teatro Victoria Eugenia se ha convertido en una de las redes sociales más activas de Gipuzkoa, ha aglutinado a grupos sociales y colectivos muy diversos, y ha sido un laboratorio de ideas que ha permitido desarrollar vínculos, formar talentos y gestar grandes Festivales que hoy se han expandido a toda la región, y que han contribuido a situar a Donostia/San Sebastián internacionalmente.

Considerado por muchos uno de los teatros europeos más importantes del siglo XX, esta exposición refleja la capacidad que ha tenido el Victoria Eugenia para adaptarse a los tiempos que ha vivido entre 1912 y 2012.

La exposición busca un equilibrio entre la historia oficial de los acontecimientos acaecidos en el teatro y las infinitas historias humanas que encierran sus paredes. Por ello, se ha habilitado un espacio en el que se podrán escuchar anécdotas, reflexiones o vivencias en boca de algunos de sus protagonistas.



Su historia es nuestra historia.

Bienvenidos a la red social del #VictoriaEugenia

La exposición se ubicará en la planta baja de la Sala Kutxa Boulevard.

El recorrido plantea cuatro ámbitos que evocan diferentes espacios del Teatro: las bambalinas, el foyer, el backstage y el patio de butacas.

#### 5. **Entre bambalinas**

Un espacio inmersivo que simula las bambalinas de un teatro, y en el que los visitantes podrán recorrer la cronología general del teatro entre 1912 y 1985, época en que el Ayuntamiento se hace cargo del teatro y realiza la primera restauración.

#### 6. **Foyer**

Una zona de encuentro que simboliza la progresiva apertura del teatro hacia nuevas actividades y nuevos públicos, que tuvo lugar a partir de la creación de los patronatos de cultura en 1986. La cronología de este período abarca desde 1986 hasta el cierre del teatro para su restauración en 2000.

#### 7. **Backstage**

Un área participativa en la que será la propia ciudadanía quien nos cuente, a través de sus propias imágenes, el último período del teatro vivido entre 2007 y 2012. Un espacio en el que, además, las personas podrán escribir comentarios, anécdotas y recuerdos. Asimismo, desde hoy mismo las y los donostiarras podrán dejar en el Museo San Telmo fotos y documentación relacionada con la vida del teatro. Si el material cedido por el museo se considera de interés, se integrarán en los fondos patrimoniales del museo para ser catalogados y conservados en sus dependencias.

#### 4. **Patio de butacas**

El espacio central de la sala se convierte en un pequeño “patio de butacas”, habilitado con las viejas butacas del teatro, donde la ciudadanía se podrá sentar, ver y escuchar recuerdos, anécdotas y acontecimientos históricos contados en primera persona por algunos de los protagonistas de la historia del teatro.

En una pantalla formada por dos monitores sincronizados de 60”, se mostrarán imágenes históricas y declaraciones de más de cien entrevistados entre los que se encuentran Elías Querejeta, Ainhoa Arteta, Javier Aguirresarobe, Imanol Olaizola, José Sacristán, Peter Ansorena, Anje Duhalde, Lucía Lacarra, Ramón Agirre, Benito Lertxundi, Carolyn Carlson, Iñaki Gabilondo, Jose Antonio Echenique, Bernardo Bertolucci, José Carreras, Olatz Beobide, Óscar Terol, etc.

El recorrido por la sala estará salpicado con algunos elementos originales del teatro: una mesa de maquillaje, carteles significativos de su historia, programas de mano, el sillón circular del foyer, butacas, etc.

## 47. HEINEKEN JAZZALDIA: LA NOCHE EN JAZZ

El 20 de julio, el Teatro Victoria Eugenia conmemora los cien años de su inauguración, y nos juntaremos para brindar y celebrar el aniversario. Eso será en el Foyer del Victoria Eugenia, a las 23:30. El Heineken Jazzaldia se une a la celebración programando La Noche en Jazz. A medianoche, se abrirán de par en par las puertas del teatro y habrá conciertos en todos los rincones del teatro, incluso en los más insospechados, dando la oportunidad al público de escuchar buena música y de descubrir los entresijos del edificio.

La Noche en Jazz será una noche divertida, pero también de gran calidad musical. El swing está garantizado por el saxofonista Ray Gelato y por el quinteto de Iparralde Just Friends; el siempre interesante jazz nórdico estará representado por el guitarrista Terje Rypdal y la cantante Mari Kvien Brunvoll; los navarros Josetxo Goia-Arribé y Arantxa Díez mostrarán una sorprendente fusión entre la jota y el jazz; el pianista Dorantes es uno de los principales exponentes del flamenco-jazz; el jazz de vanguardia lo pondrá el trompetista Peter Evans; y el fin de fiesta correrá a cargo del DJ francés S. Mos.

La noche en Jazz: 20 de julio. Teatro Victoria Eugenia. En el Foyer brindis a las 23:30 y en el Espacio Skoda, conciertos a las. 23:58. 3 €

### PROGRAMA

23:30 Brindis

23:58 Gaujazza

Sala Principal

24:00 Ray Gelato & His Giants Orchestra: Tribute to Louis Prima

02:00 S. Mos

Sala Club

01:00 Terje Rypdal

Dantza Aretoa / Sala de Danza

24:00 Just Friends Quintet

01:00 Josetxo Goia-Arribé

02:00 Peter Evans

Foyer

01:00 Dorantes

Sala de Prensa

24:00 Mari Kvien Brunvoll

## BIOGRAFÍAS

- **Ray Gelato & His Giants Orchestra: Tribute To Louis Prima**

**Ray Gelato** (voz, saxo tenor), **Oliver Wilby** (saxo tenor, saxo alto), **Andy Rogers** (trombón), **Daniel Marsden** (trompeta), **Gunther Kurmayr** (piano), **Oliver Hayhurst** (bajo), **Sebastiaan De Krom** (batería)

[www.raygelato.com](http://www.raygelato.com)

Ray Gelato mantiene la tradición de los grandes showmen del jazz de los años 40 y 50. Su desbordante espectáculo devuelve al jazz sus componentes de humor y entretenimiento. El amplio sonido del saxo tenor de Gelato, basado en los de Ike Quebec e Illinois Jacquet, unido a su estilo como cantante (derivado de Louis Prima y Louis Armstrong) y a sus habilidades como showman, lo convierten en uno de los principales estandartes de la música swing en nuestros días.

- **Just Friends Quintet**

**Dominique Burucoa** (trompeta), **Emmanuel de Montalembert** (guitarra), **Laurent Aslanian** (contrabajo), **Arnaud Labastie** (piano), **Antoine Gastinel** (batería)

[justfriends.canalblog.com](http://justfriends.canalblog.com)

Este quinteto de Baiona practica el jazz denominado “mainstream”, el de la época histórica de Count Basie, Duke Ellington y Benny Goodman. Mediante arreglos inéditos y composiciones propias, la orquesta consigue un sonido particular en el que se desarrollan con facilidad los solos de los instrumentistas y las intervenciones cantadas en dúos y tríos, que garantizan el ambiente alegre que desprende Just Friends.

- **Terje Rypdal**

**Terje Rypdal** (guitarra), **Ståle Storløkken** (órgano), **Nikolai H. Eilertsen** (bajo), **Paolo Vinaccia** (batería)

[www.myspace.com/terjerypdalodyssey](http://www.myspace.com/terjerypdalodyssey)

El guitarrista noruego Terje Rypdal se hizo conocido para los aficionados al jazz como componente del Esoteric Circle de Jan Garbarek. Pronto se convirtió en una de las imágenes de marca del sello discográfico ECM, llamando la atención por su inmensa capacidad interpretativa, puesta de manifiesto en *After the Rain*, disco en el que tocaba todos los instrumentos. En 2010 le vimos en el Heineken Jazzaldia en un feliz trío con el contrabajista Miroslav Vitous y el batería Gerald Cleaver. Para su proyecto actual, cuenta con algunos de los músicos más destacados del panorama nórdico.

- **Mari Kvien Brunvoll**

**Mari Kvien Brunvoll** (voz, electrónica)

[www.myspace.com/marikvienbrunvoll](http://www.myspace.com/marikvienbrunvoll)

En Noruega están ya acostumbrados a los artistas innovadores que han conseguido situar al jazz noruego en la vanguardia mundial. Sin embargo, todavía surgen talentos que asombran por su capacidad para crear un ambiente musical sugerente. Es lo que hace la cantante Mari Kvien Brunvoll con su versátil voz y el apoyo de algunos aparatos electrónicos. Siguiendo la línea marcada por antecesoras como Sidsel Endressen, Mari Kvien Brunvoll se mueve en un terreno indefinido entre el jazz, el electropop y el blues acústico.

- **Josetxo Goia-Arribé / Arantxa Díez: *En Jota***

**Javier Olabarrieta** (piano), **Arantxa Díez** (voz), **Baldo Martínez** (bajo), **Josetxo Goia-Arribé** (saxo tenor, arreglos, composiciones)

[www.josetxogoia-aribe.com](http://www.josetxogoia-aribe.com)

Josetxo Goia-Arribé es un músico navarro de reconocido prestigio en el jazz europeo por su habilidad para llevar al terreno jazzístico elementos de la música tradicional en clave contemporánea y novedosa. Su último trabajo, *En Jota*, aborda un género musical, la jota, que al igual que el flamenco o el fado está fuertemente enraizado en el paisaje de la Península Ibérica.

- **Dorantes: *Sin Muros!***

**Dorantes** (piano), **Ricardo Moreno** (guitarra), **Yelsy Heredia** (contrabajo), **Nano Peña** (batería)

[www.dorantes.es](http://www.dorantes.es)

El piano se hace flamenco y el flamenco suena a nuevo gracias a David Peña Dorantes. Este músico sevillano (Lebrija, 1969) ha tenido la valentía de explorar con éxito una senda hasta ahora desconocida en el flamenco, aunque sin traicionar las enseñanzas de una familia de abolenjo dentro de la música tradicional andaluza.

- **Peter Evans**

[www.myspace.com/peterevanstrumpet](http://www.myspace.com/peterevanstrumpet)

El trompetista Peter Evans se hizo conocido para el público del Heineken Jazzaldia el año pasado, cuando participó en dos de los conciertos que más entusiasmaron a la crítica: el que

ofreció con el pianista Agustí Fernández, improvisación pura, y el que dio como integrante de Mostly Other People Do the Killing, una de las bandas más innovadoras del jazz actual.

- **S. Mos**

**S. Mos** (DJ, vocalista, teclados)

[www.smosmusic.com](http://www.smosmusic.com)

El DJ francés S. Mos es un maestro en la mezcla del hip-hop, el jazz y la electrónica. Maneja los platos con gran habilidad para producir un sonido irresistiblementeailable. En sus remixes conviven Tupac y Duke, Eminem y Mingus, Ice Cube y Dexter Gordon. Sus discos se encaraman sistemáticamente a los primeros puestos de la lista de vinilos en Francia y otros países europeos.

## SEMANA GRANDE: ESPECTÁCULO PIROMUSICAL

### Espectáculo piromusical

El colofón de la Semana Grande donostiarra llevará la imagen del Teatro victoria Eugenia. Y es que el sábado 18 de agosto, dando cierre al Festival Internacional de Fuegos artificiales, tendrá lugar un sorprendente espectáculo desde el edificio del teatro.

Con una duración estimada de 22 minutos, en él se repasará la historia del Teatro Victoria Eugenia sintetizándola en diecisiete de los innumerables eventos que el Teatro ha vivido a lo largo de estos 100 años. El espectáculo se realizará teniendo como elemento principal el propio equipamiento escénico y edificio centenario, dirigido hacia la barandilla del río Urumea. Se podrá contemplar directamente desde Ramón María de Lili, Espigón de José María Leizaola y desde el puente María Cristina. Probablemente, además, los efectos de más altura, se verán perfectamente desde Ulía, Egía y el propio Boulevard.

Así, al son de la música de Santorini, el espectáculo comenzará con la iluminación del contorno del Teatro con bengalas. A continuación, comenzará el repaso histórico haciendo mención a la primera obra representada "*En Flandes se ha puesto el sol*" de Eduardo Marquina. Algunos de los eventos que se verán reflejados en el piromusical serán: la ópera *Aida* de Verdi, el debut de la Compañía Lírica del Orfeón Donostiarra con la obra *Katiuska* del donostiarra Pablo Sorozabal o la mundialmente conocida "*Carmen*" de Bizet. Uno de los patriarcas de la música vasca, Mikel Laboa, será homenajeado con "*Txoria Txori*" y el "*Baga Biga Higa*". También se tributará un homenaje a dos grupos musicales legendarios que nacieron en 1962: The Beatles y Beach Boys con un breve recorrido musical por algunos de sus temas y para finalizar la violinista Vanessa Mae en la versión *Storm Techno* de Antonio Vivaldi.

El espectáculo piromusical diseñado por el reconocido director artístico Bernardo Sanchiz Vallbona, correrá a cargo de la firma alavesa Pirotecnia Valecea - PIR S.L. Será sin duda un enfoque diferente a la que estamos acostumbrados para observar un gran espectáculo visual que seguro será recordado durante mucho tiempo.

**Los gigantes y cabezudos bailarán al Victoria Eugenia en su 100 Aniversario. Será el 15 de agosto, en la entrada del teatro a las 19:45.**

Los gigantes y cabezudos, habituales protagonistas de las fiestas donostiarras, también quieren homenajear a nuestro Teatro en su 100 Aniversario. Estrenará para ello una coreografía que han preparado ex profeso.

El estreno tendrá lugar el día 15 de Agosto próximo tras su salida desde la Pz. Zuloaga a las 19:45 horas. Colocados en fila ante la entrada principal del Teatro, las 8 imponentes figuras que componen nuestra comparsa (pareja de guipuzcoanos, pareja de alaveses, pareja de vizcaínos y pareja de navarros) saludarán al Teatro y bailarán en su honor.

Una estampa típica de nuestra Semana Grande, la de los gigantes bailando que, en esta ocasión, tomarán la calzada alrededor del teatro para poder felicitar como es debido a nuestro centenario equipamiento escénico.

